



Litroak mantso, euroak, berriz,
a toda ostia igotzen!
Hau ere Putinen kulpa omen...
Ene, zenbat adarjotze!
Baina esaidazue benetan
gaiztoa pelikula honetan
Errusia bakarrik ote?
Gu engainatzen dira onenak,
jendeari haien nahi dutena
sinestarazten diote...

Sortzen diziguten beldurrekin
manipulatzen gaituzte.
Pandemiarekin ere batzuek
fortuna bikoitzu zuten.
Aberastea da haien nahia,
areagotuz pobretze maila;
asmo feudalak dituzte.
Personak datu bihurtu nahian
digitalizazio garaian
erdi arora itzultzen!



Doinua: IZARREN HAUTSA (X. LETE)